

FUNTZEZKO JARDUERAK

1. NOLA SALDUKO DUGU GURE PROIEKTUA?

Gure proiektua arazo bati aurre egiteko sortutako ekimen bat izanik, lehenik eta behin, gizartea birziklatzearen garrantziaz kontzientziaztea da gure helburua. Hori lortzeko, ingurumenaren zaintzan eta iraunkortasunean oinarritutako hainbat jarduera eta ekimen burutuko genituzke, jendeari gai honen inguruko informazioa zabaltzeko eta beren eguneroko bizitzan eragiteko.

Horrez gain, gure produktua sustatzeko eta gure helburuak lortzeko, marketin-kanpaina oso bat garatuko genuke. Kanpaina honek gure produktuaren onurak erakutsiko lituzke, bai ingurumenarentzat bai gizartearentzat. Halaber, kanal ezberdinak erabiliz, gure proiektua publiko zabal bati aurkezteko estrategiak diseinatuko genituzke, hala nola sare sozialetan, komunikabide tradizionaletan eta ekitaldi berezietan.

Azkenik, salmenta-prozesua hasteko prestatuko ginateke, gure produktuak ahalik eta publiko zabalenari iristea bermatzeko. Epe luzera, helburua litzateke gure proiektua erreferentzia bihurtzea birziklapenaren arloan, jendearen kontzientziazio maila handituz eta ingurumenarekiko errespetua sustatuz.

2. ARAZOEN KONPONBIDEA

Produktua sortzeko prozesuan, hainbat arazo sor daitezke, eta horiek identifikatzea eta konpontzea funtsezkoa da arrakasta lortzeko. Ondorengo paragrafoetan, sor daitezkeen arazo nagusiak azalduko ditugu eta bakoitzarentzako konponbideak proposatuko ditugu, prozesua eraginkortasunez eta arrakastaz gauzatzeko.

Gure proiektua gauzatzeko, hainbat materialen erabilera beharrezkoa da, eta horien artean, bereziki, sensoreen erabilera nabarmentzen da. Sensoreek proiektuaren funtzionamendu egokia bermatzen dute, bai hasierako garapen-fasean, bai salmentak abian jarri ondoren. Hala ere, denborarekin, erabilera intentsiboaren edo bestelako faktoreen ondorioz, sensore hauek apurtu edo desgaitu egin daitezke. Horrek arazo bat ekar dezake, izan ere, sensoreek gure sistemaren funtzionamendu egokian oinarri garrantzitsua betetzen dute.

Arazo honi aurre egiteko konponbide egokiena makina tailer batera eramatea izango litzateke, non adituak eremu kaltetuak aztertu eta matxura konponduko duten. Horrez gain, beharrezkoa balitz, kaltetutako makina edo osagaia beste makina edo osagai funtzional batekin ordezkatzeko litzateke, sistemaren jarraipena eta eraginkortasuna bermatzeko. Halaber, prebentzio-neurriak hartzea gomendagarria izango litzateke, hala nola sensoreen aldizkako mantentze-lanak egitea eta erreserba piezak izatea. Horrela, matxurak sortutako etenaldiak murriztu eta gure proiektuaren fidagarritasuna bermatuko genuke.